



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

PRESS PLAY!

PRESSPLAY mikrojaialdia

[Código]/[Edición]

PRESSPLAY mikrojaialdia! [Ermua]

2. edizioa.

Urriaren 24tik abenduaren 31ra

Giza-eskubideak, mundua ulertzeko eta elkartasuna eraikitzeko

“Birnahasteaz ari garenean aberasteaz ari gara, biltzeaz, INDARRAz ari gara, ulertezina den zerbaitez. Eta ez da lan hori, nahasketa hori ezberdin egiten gaituena”. Mohamed Afakir (*Ermuko Lankidetza Kontseiluko kidea*).

Remixaren kultura narrazio berriak egitea ahalbidetzen duen eta horiek suspertzen dituen gizartea da, horretarako lehen dauden materialak konbinatuz edota editatuz, testuinguru sozial berria sortzeko. Eta... Giza Eskubideak birnahasten baditugu... zer? Gure asmoa aniztasuna bilduko duen gizarte barneratzaile bat kontutan hartzea da, eta Giza Eskubideak guztiona den zerbait bezala pentsatzea, nahastea eta birnahastea.

PRESSPLAY! 2. edizio honetan berriz ere jarriko dugu martxan zirkuitua. Elkartu zaitez gure IKUSENTZUNEZKO bidaia honetara, non Giza Eskubideak izango ditugun mundua ulertzeko eta elkartasuna eraikitzeko gidari.

[MUSIKA-DOKUMENTALAK]

**Urriaren 24 eta 25ean 19:30ean eta
urriaren 26an, 20:30ean.
Ermua Antzokia**

Yallah! Underground/Arabiak

(Txekiar Errepublika, Alemania, Erresuma Batua. 2015. 85 min). Farid Eslam.

Mundu arabiarreko artista progresiboak. “Ez gara rapero hutsak. Enbaxadoreak gara”. Artista bisual palestinarrak, abeslari egiptoarrak, Jordaniako hiphoperoak, rasta israeldarrak. Begirada politiko bat da, adoregabezia eta harriduraz betea. Udaberri Arabiarraren ondorengo belaunaldia bere espazioa eskatzen ari dira “biharamunean eguzkirik aterako ote den ez dakizun” lekuan.

*Parte hartuko du: **Javier Aisak**, arabislamiar munduan espezializatutako kazetaria.*

My Buddha is Punk/ Birmanian

(Alemania, Birmania. 2015. 68 min). Andreas Hartmann.

Estatuan nagusi den diktadura militarren abusu etengabeak salatzen dituen punk-otoitz birmaniarra da, Kyaw Kyaw izeneko 25 urteko punk birmaniar batek eginga, bere herrian Punk-eszena obsesioz bultzatu nahi duen gazte bat. Bere punk taldearekin batera, Kyawek giza-eskubideen etengabeko urraketa erakutsi nahi du. Bere musika eta adierazpenen bitartez gutxiengo etnikoen jazarpena salatzen du eta budismoa eta punkaren arteko sinbiosia helarazi nahi die belaunaldi berriei, edonolako erlijio-doktrinari edota dogma politikori uko eginez. Askatasunaren alde borroka egin eta, aldi berean, bere buruarenganako fideltasuna mantendu behar du.

*Parte hartuko dute: **Fernando Armendarizek**, giza-eskubide gaietan espezializatua eta **Mónica Hernandok**, Víctimas y Derechos Humanos elkartearen zuzendaria.*

Fonko /Áfrika

(Suedia. 2016. 86 min). Göran Olsson, Lamin Daniel Jadama eta Lars Lovén.

“Fonko” hitzak “lagun hurkoa zaindu” esan nahi du woloferan. Fonko asmo handiko bidaia da Afrikako lurretan barrena eta bizirik dirauen kontinente bateko musika-mota berriak erakutsi nahi ditu. Fonkok betiko soukous, highlife edo kongoar rumba baztertzen ditu, gauza berriak, bitxiak, berak erabili ohi dituenak miatzeko. Bizirik dirauen kontinente bateko musika-mota berriak erakusten ditu: Surafrikan crackeatutako softwarea (xede afro-futurista duena), Ghanako “gospel porno”aren ondorengoa da, eta azken hori baino lehenago Angolako ghettoan “kuduro” (culo



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

PRESS PLAY!

PRESSPLAY mikrojaialdia

[Código]/[Edición]

duro) dantza eroa. Guztia azken-azkena, egin berri-berria, eta estrofa bakoitzean apartheid-a, kolonizazioa, gerra, bai eta ilusioa eta bakea ere.

*Parte hartuko du: **Chema Caballerok**, DYES gobernuz kanpoko erakundearen koordinatzaile eta "Afrika no es un País en el periódico El País" blogaren egileetako bat, eta Giza Eskubiden Jaime Brunet saria 2006 izandakoa.*

Laguntzaileak: CINE-CLUB ERMUA eta INE-DIT

[Heziketa-tailerrak]

Andrea Aisa Vegaren eskutik, hezkuntzkomunikatzaile eta kontsultorea, hirugarren sektorerako ikus-entzunezko komunikazioan espezializatua.

UNIBERTSO SOLIDARIO HEDATUAK

Urriaren 31n, asteartea, 18:00etatik 20:30era.

Lobiano Kultur Gunean

Ermuko gizarte eta kulturaren arloko kolektibo eta pertsona interesdunentzat

Narrazio-transmedia diseinu-tailerra, non Design Thinking dinamiketan eta jolas-praktiketan oinarrituko garen, xedeak planteatzetik hasi eta azken aurkezpenera arteko prozesu bati jarraituta, non brainstorming edo ideia-jasa faseak izango ditugun. Tailer honen asmoa kolektiboek behar dituzten tresnak ematea da, beraien proiektu- kausa transmedia propioa garatu ahal izateko eta modu esanguratsu, hunkigarri, zintzo eta eraginkorrean komunikatzeko.

NIRE MUNDUA: ZURE MUNDUA

Azaroaren 2an, osteguna, 11:30etik 14:30era.

Ermua-Mallabia Lanbide Hastapenatarako Ikastegian

Ikastegiko ikasleentzat

Birnahaste-tailer analogikoa, Ingurumen Eskubideak eta ingurumen-justiziari eta ingurumen-hiritargo globalari lotutako eduki pedagogikoak lantzeko.

[Herriarren aktibismoa]

ERMUAREN ERRETRATUAK. BIZITZA ETA ONARPEN ISTORIOAK

Argazki-estudio irekia

Urriaren 30 eta 31n, 17:00etatik 19:00etara.

Lobiano Kultur Gunean

Jendearentzako erakusketa abenduaren 18tik aurrera Merkatu Plazan

Inaugurazioa 18:00etan.

Inside Out Project delakoaren eremuan

Ermuko herritarrentzat irekita egongo den argazki-saioa, kale-galeria inprobisatu honetako protagonista izan daitezen. Erakusketa horren bitartez aurpegia eta historia ipiniko dizkiogu migrazioari, onarpenari, bizikidetzari eta elkartasunari. Ikusgai jarriko ditugu komunitateak sortzeko izaten ohi diren indarra, adorea eta elkarrekiko errespetu eta ezagutza.

Jaia

Underground soinuak

SOINU-BIDAIA EMAKUMEZKO FLOWA ETA SOUNDSYSTEM JAMAIKARREAN ZEHAR

Azaroaren 2an, osteguna, 18:00etatik 23:30era.

San Antonio ermitan, Ermuko Izelaieta kalean

Kuturapeko murgilaldia bizi ezazu PressPlay 2. Jaialdiaren amaiera-festan, musika, graffitia eta dantzaren bitartez.

18:00 – 18:45: LAS GUERRILLERAS DEL MICRO

Ikus-entzunezko elkarriketa, emakumeek eginiko Hip-Hoparen inguruan

19:00 – 20:00: EL FLOW FEMINISTA

DJ set + Rueda de Femcees “**Eskina Femenina**” kolektiboaren eskutik

21:00 – 23:30: BACK TO THE ROOTS

Live bat **Righteous Way Sound** kolektiboaren eskutik

#hiphop #baile #subcultura #soundsystem & +

[Ikus-entzunezko ekintza sareetan]



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

PRESS PLAY!

PRESSPLAY mikrojaialdia

[Código]/[Edición]

Gure proposamen guztien oinarritzko osagaia ikus-entzunezko kultura digitala da, eta eduki guztiak jendearen esku jartzen ditugu ong line espazioan, espazio hori ere egiteko, birpentsatzeko, birnahasteko leku bat delako. Ermuko “Make it Visual” kolektiboarekin elkarlanean ikusizko kontakaria edo graphic recordingg a egingo dugu.



REDO

REPENSAMOS LOS CAMBIOS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

REDO

REPENSAMOS LOS CAMBIOS